

9. TESTUA. Ipuina

Hartz zuria

Animaliek hitz egiten zuten garaitik eskimalak izotzez egindako etxeetan bizi dira eta ondo moldatzen dira toki hotzetan.

Hala ere, behin batean ume eskimal batek ez omen zuen aurkitu etxerako bidea eta galdu egin zen betiko. Inork ez zekien umeak bizirik irautea lortu ote zuen. Inork ez zuen berriro ikusi. Gurasoek beste seme bat ere bazuten, eta tira, gaitz erdi!

Hura gertatu eta urte batzuetara, etxean hazitako semea, galdutako umearen anaia alegia, ehizara joan zen, eta itsasertzean zegoela, kraust! Izotz zati handi bat puskatu, eta plaust!, uretara jausi eta mutikoa bertan harrapatuta geratu zen, lehorretik gero eta urrunago, azkenerako itsasoan galdu zen arte.

«Ez dago zereginik –esan zuten herriko zaharrek–, horrelakoetan inor ez da bizirik itzuli». Hura zoritxarra! Sorgindutako familia zirudien. Ez beharra berriro ere etxean ate-joka.

Itsasontzi baten moduko izotz puska erraldoi hartan, izozmendi hartan alegia, mutikoa ez ezik, hartz zuri bat ere bazegoen. Gaztea ikaratu egin zen hasieran, baina gero lagun handiak egin ziren. Atera kontuak, hartzak arrainak ematen zizkion jateko eta besarkatu ere egiten zuen mutikoa, berotzeko. Baina harrigarriena hau: hartzak esan zion senitartekoak zirela. Senitartekoak?

Egun batzuk igarota, izotz zati hura berriro ere lehorrera hurbildu eta gazteak, etxerantz abiatzeko modua izan zuen. Agurtzeko orduan, hartz zuriak bere ile luze batzuk eman zizkion opari.

Gazteak gertatutako guztia zehatz-mehatz kontatu zuen herrian, baina hitz erdirik ere ez zioten sinetsi. «Zu ez zaude burutik sano, mutiko». Hala ere, hartzaren ileak erakutsi zizkienean, denak aho zabalik: «Oooooo! Egia al da orduan? Hartz zure familiakoa zen?».

Senitartekoak ziren ala ez oraindik ez du inork argitu, baina antza denez, hartzak anaia balitz bezala babestu zuen mutikoa.

Ipuin kontatua, ipuin bukatua.

teatroa.com (moldatua)



Aukeratu erantzun zuzena.

- 1 Guraso eskimalek zenbat seme izan zituzten?
 - A. Bat.
 - B. Bi.
 - C. Hiru.
 - D. Lau.

- 2 Zer gertatu zitzaion semeetako bati?
 - A. Hartz zuri batek eraso egin zion.
 - B. Etxerako bidean galdu egin zen.
 - C. Hotzez hil zen.
 - D. Izotz zati handi bat buruan jausi zitzaion.

- 3 Zer gertatu zitzaion etxean hazitako semeari?
 - A. Ehizan zebilela, etxerako bidea galdu zuen.
 - B. Ehizan zebilela, hartz zuri batek eraso egin zion.
 - C. Ehizan zebilela, itsasontzi batek uretara bota zuen.
 - D. Ehizan zebilela, izozmendi batean harrapatuta geratu zen.

- 4 Zer esan zuten herriko zaharrek albiste txar haren berri izan zutenean?
 - A. Sorginek eraman zutela umea.
 - B. Umearen bila hasiko zirela.
 - C. Ez zegoela umea bizirik aurkitzeko aukerarik.
 - D. Hartzek zainduko zutela umea.

- 5 Norekin egon zen umea izozmendi hartan?
 - A. Inorekin ere ez; bakar-bakarrik egon zen.
 - B. Hartz zuri batekin.
 - C. Bera bezalako beste mutiko batekin.
 - D. Hartz batekin eta beste mutiko batekin.

- 6 Aukeratu esaldiaren bukaera zuzena. *Hartzak mutikoari...*
- A. ...bere ile batzuk eman zizkion.
 - B. ...jatekoa lapurtzen zion.
 - C. ...eraso egin zion.
 - D. ...esan zion ez zuela senitartekorik.
- 7 Aukeratu esaldiaren bukaera zuzena. *Mutikoa herrira heltzean...*
- A. ...ez zuen gertatutakoa kontatu.
 - B. ...hartzaren ileak erakutsi zituen.
 - C. ...ilea galdu egin zuen.
 - D. ...opari asko banatu zituen herrikideen artean.
- 8 Zer testu mota da irakurgaia?
- A. Albistea.
 - B. Ipuina.
 - C. Biografia.
 - D. Elkarrizketa.
- 9 Zer zati ditu ipuinak?
- A. Osagaiak eta jarraibideak.
 - B. Hasiera, korapiloa eta bukaera.
 - C. Leloa eta irudiak.
 - D. Galderak eta erantzunak.
- 10 Aukeratu egia den esaldia.
- A. Ipuinek esaldi bereziak dituzte hasieran eta bukaeran.
 - B. Ipuinak oso zailak dira ulertzeko, istorio asko biltzen dituztelako.
 - C. Ipuinak gure herrietan eta hirietan atzo jazotako gertakariak kontatzen dizkigute.
 - D. Ipuinak egunkarietan eta aldizkarietan argitaratzen dira.